




TXIKITTO!

2024ko martxoa 223. zenbakia



ERDI AROKO MUSIKA ESKUETAN

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	DENBORAPASAK	11-13
IKASLEEKIN	4-5	LEHIAKETA	13
BERRIKETAN		ZER IRAKURRI	14
IKASTETXEETAKO.....	6-7	BITXIKERIAK	
BERRIAK		IPUINA	15
AITXITXA-AMAMEKIN. .	8-9	ZU BAI MARGOLARI...	16
BERBETAN			
SUKAL-SALTSAN	10		

 **eta kitto!**
euskara elkarteak

Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarteak
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maider Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maider Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Ekhi Belar

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





- Doktore, arazo bat daukat, inork ez dit kasurik egiten...
- Hurrengoa pasa dadila!



Gizon bat autobusean sartzen da eta gidariari galdetzen dio:

- Zenbat balio du autobusak?
- Euro bat.
- Bada, jaitsi daitezela denak, nik erosiko dut-eta.

Jaimitok bere irakasleari galdetzen dio:

- Andereño, nik egin ez dudan zerbaitengatik zigortu egingo nauzu?
- Ez, jakina, Jaimito. Nola zigortuko zaitut ezer egin ez baduzu?
- Uf, eskerrak!! Ez ditut etxekolanak egin-eta!



- Nola esaten da txakurra ingelesez?
- Zein erraza, "dog" esaten da.
- Eta nola esaten da al baitaria?
- Ba... "dog-tor"

Zein da tomatearen dantza gogokoena?
Saltsa!!





Tetragrama, Erdi Aroko musika gertutik ezagutzeko aukera

Arrateko Andra Mari eskolako umeeek Erdi Aroko jo dute eta sasoi hartako musikaren inguruan jardun dute. Orain, ikasitakoa azaldu digute eta eurek margotutako tetragramak erakutsi dizkigute.



BIDEOA



**AMINA
HANIQUI**
11 urte

Musika saioetan ikerketa-lan txiki bat egin ondoren, Erdi Aroko bezala, tetragramak landu ditugu. Irakasleak galdera bat bota zigun: “Betidanik existitu ote dira gaur egun ezagutzen ditugun pentagramak eta notak?”.



**IMRAN
BASRI**
12 urte

Bideo labur bat ikusi genuen musikak historian zehar gaur arte izan duen garrantzia ikusteko. Bideo horretan ikusi genuen pentagramak eta notek 476. urtetik 1453. urtera arteko sasoiaren dutela jatorria. Sasoi horretan monastegiko monjeek kantu gregorianoak abesten zituzten. Musika buruz ikasi behar zuten, ez zutelako idatziz jasotzeko modurik.



**YASSINE
ABOU
12 urte**



Orduan, Guido De Arezzo izeneko monje bati abesti horien guztien melodiak jaso ahal izateko marra gorri bat egitea okurritu zitzaion, eta jendea marraren gainean eta azpian puntu bat jartzen hasi zen. Ondoren, beste marra batzuk gehitu zizkien, lau guztira, tetragrama sortu arte.

**SAQLAIN
WERIS
11 urte**



Nota musikalen izenen jatorria kantu gregorianotik datorkigu. Guido latinezko abesti baten oinarritu zen notak asmatzeko, esaldi bakoitzaren lehenengo silaba aurreko esaldia baino soinu altuago batekin hasten zela konturatu baitzen. Horrela, gaur egun ezagutzen ditugun DO, RE, MI, FA, SOL, LA eta SI asmatu zituen.

**SARA
LUQUE
11 urte**



Hau guztia ikasi ondoren, gure tetragramak sortzen hasi ginen. Irakasleak eredu ezberdinak ekarri zizkigun eta, gustokoena aukeratu ondoren, lanean hasi ginen.

**SIMON
UNANUE
12 urte**



Hauek izan dira jarraitu ditugun pausoak: Lehenik, papera zimurtu dugu bolatxoak eginez. Bigarrenik, papera zabaldu eta, kafearen eta uraren nahasketarekin, kotoi bat hartu eta alde batetik zein bestetik ondo busti dugu. Hirugarrenik, egunkari zaharren gainean jarri dugu lehortu arte. Hurrengo saioan margotzen hasi gara. Lehenengo, lau marra gorri margotu ditugu eta, ondoren, soinuak eta latinezko abestiaren letrak beltzez margotu ditugu, Guidok egin zuen bezala.



URKIZU

6. mailan gerra zibila lantzen egon garela-eta, Maria Jesus Garate eta Jon Illaramendi beraien garai hartako bizipenak gurekin konpartitzera etorri ziren. Honekin lotuta, Arrateko interpretazio zentrora txangoa egin genuen eta Akondiako lubakiak eta tunela ikusteko aukera izan genuen. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, ondoren Santa Kurutzen bazkaldu genuen eta zapaburuak ere jaso genituen. Egun aparta izan zen! LH4ko ikasleak, martxoaren 7an, Itsaspeko bihotzak areto literarioa ikustera joan ziren urtero bezala.



ARRATEKO ANDRA MARI



4. mailako ikasleak Eibarko Andretxea bisitatu zuten. 3. eta 4. mailakoek irteera izan zuten Leintz Gatzagara eta 3. zikloko ikasleak Coliseora joan ziren Tinkok antolatutako film bat ikustera. Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko egunean, “Konplize ditut eta” abestia zeinu hizkuntzaz ikasi ondoren, bideo-muntaia bat egin genuen abestia denon artean osatuz. Gora emakumeak!!!!

5. eta 6. mailako ikasleek Drogomenpekotasanaren inguruko tailerrak izan zituzten eta 5. mailako ikasleek “Alpistegia” bertso-antzerkia izan zuten Portalean. Eta hiruhilekoari amaiera emateko, martxoaren 19an Korrika txikia! Harro herri korrika!!!!!!

ITURBURU

Eroskiren bitartez, elikaduraren inguruko tailerretan parte hartu zuten Iturburuko 6. mailakoek. Garraio publikoan Arrasatera joan ziren eta han, Basque Culinary Centerreko sukaldari bat gidari zutela, jatordu bat prestatzeko eman beharreko pauso guztiak ikasi zituzten. Elikagaiak ahalik eta gertuagokoak izatea ezinbesteko baldintza izan zen. Menua zoragarria zen: barazki enpanadillak, legatza patatekin saltsa berdean eta gatzatoa eztiarekin eta fruta. Elikagaiak aztertu ondoren, erosketa guztiak modu arduratsuan egin zituzten eta menuaren kostua kalkulatu zuten. Eurek prestatutako menu zoragarria dastatu ahal izan zuten.





SAN ANDRES

Gabonetako oporrak igaro ondoren hasi ginen baratzeko lanekin: belarrak kentzen, lurra prestatzen, ongarrria botatzen... Lan neketsua izan da, baina oso gustura eta pozik joaten gara baratzera. Dagoeneko dena prest dugu eta hasita gaude landaketa lanekin. Ea laster letxuga eta kipulin ederrak bildu ditzakegun entsalada goxo bat jateko!



ALDATZE

Otsailaren 22an, 5. mailako ikasleak, Portalera joan ginen "Alpistegia" saioa ikustera. Ordubate ederra pasa genuen bertsoan, irrifarrez. Datorren urtekoei gomendatuko diegu! Eta orain Aste Santuko oporrak noiz iritsiko zain gaude! Animo, berehala izango gara oporretan-eta!

LA SALLE

Berehala pasatu da bigarren hiruhilabetea, Aste Santuaren atarian gaude eta... hilabete hau ere ekintzaz beteta izan dugu: LH3koek igeriketa-ikastaroa izan zuten, LH 5 eta 6ko ikasleak Coliseora joan ziren Tinkoko film bat ikustera, Proyde-proega astea ere izan dugu, bizkotxo solidario eta guzti. Zenbat bizkotxo dastatzeko aukera izan genuen!!! LH3ko ikasle baten amama Itziar etorri zen eskolara Txikito!rako elkarrizketa egitera (aldizkari honetan duzue elkarrizketa interesgarria), eta LH4koak Lurraskan egon ziren gau bat pasatzen. Zelako hilabete potentea izan dugun!



AMAÑA

Otsailaren 28an, LH4ko ikasleak "Itsaspeko bihotzak" areto literarioan parte hartu zuten. Nahiz eta azken urteetan Errebalen egin izan den, oraingoan eta hurrengoetan Andretxean egingo den ekintza da. Hezkidetzarekin lotuta dagoen ekintza bat da. Liburu eta eskenatoki ezberdinak erabiliz, emakumearen rola bizitzako hainbat esparrutan zein den lantzen da eta ikasleei hainbat ikuspegi ematen dizkiete. Liburuak zoragarriak dira eta lantzen den gaia ezinbestekoa gaur egungo gizartean. Bai ikasleek zein irakasleak asko disfrutatu zuten!





Itziar Gisasola eta Mikel Tueros:

«Buruz ikasten genuen dena; erreskadan esan ditzaket ibaiak edo Andaluziako probintziak»



Itziar eta Mikel amama-ilobak La Salle ikastetxean elkartu ditugu, bertan ikasten dihardu-eta Mikelek LH3. mailan. Andereño izan da urte askoan Itziar, Eibarko hainbat ikastetxetan. Kontu asko entzun ditu amamaren ahotik Mikelek; denak ezin ditugu jaso baina hemen dituzue horietako batzuk.

Noiz eta non jaio zinen?

Aspaldi (barreak), 1953ko martxoaren 10ean, Eibarren.

Zenbat zineten etxean?

Hiru, alaba bakarra naiz-eta.

Nola banatzen zenituzten etxeko lanak?

Gehienak, edo ia guztiak, amak egiten zituen. Aitak ezer gutxi, sasoi hartan horrela ziren gauzak. Nik laguntzen nuen etxean baina lanik gehienak amak egiten zituen.

Nola gogoratzen dituzu eskolako urteak?

Oroitzapen onak ditut, baina egia da eskola nahiko gogorra zela. Etxekolanekin, eta ikaske- tekin oro har, oso zorrotzak ziren. Pentsa, 80

ikasle hasi ginen batxilergoan eta horietatik 12k bakarrik amaitu genuen.

Zein ikasketa egin zenituen?

Batxilergora arte Aldatzen ikasi nuen eta gero magisteritza Donostian eta Pedagogia Bilbon. Eta segituan lanera.

Non izan zara andereño?

Amañan lehenengo 2 urtez, 26 urte Ama Me- sedeetan eta gero La Sallen, orain dela 10 urte jubilatu nintzen arte. Orain ere egunero nator eskolara, ilobak ekartzera (barre).

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Ez genuen ez telebistarik, ez mugikorrik... eta kalean ematen genituen ordu asko. Bazkalor- duan amak bentanatik egiten zigun oihu, Ar- dantzako iturririk ura eramateko etxera.

Zein zenuen eta duzu jatekorik gustukoak?

Umetan oso jatun txarra nintzen. Gehien al- mondigak eta patata frijituak gustatzen zi- tzaizkidan; gaur egun, dena.

Nola konpontzen zineten Interten barik?

Ondo, eskolan dena ikasten genuen buruz;



gaur egun erreskadan esan ditzaket ibaien ize-
nak, Andaluziako probintziak...

Zertara jolasten zenuten?

Gauza askotara, txingor, sokasalto, ezkutake-
ta... Eta ogitartekoa hartu eta mendira joaten
ginen sarri, Arrajolara, Sosolara...

**Zer botatzen duzu faltan orduko Eibartik? Eta
zer ez?**

Faltan botatzen dut ingurukoekin genuen harre-
man estua, bizilagunekin, herritarrekin... Baina,
aldi berean, kontrol handia zegoen, bizilagunek
bentanatik galdetzen zizuten: Nora zoaz? Zeine-
kin? Horren falta ez dut somatzen.

Zer da Eibartik gehien gustatzen zaizuna?

Jendea eta giroa. Lagun asko ditut eta astero el-
kartzen gara bazkaltzeko.

Noiz sartu zen telebista zuen etxean?

9 urte nituenean.

Eta kotxea?

Ezkondu arte ez nuen kotxerik izan.

Nora joaten zineten oporretan?

Pasai-Donibanera, familia genuen han-eta. Hon-
dartzarik ez zegoen baina haitzetan bainatzen
ginen, itsasontzi artean. Eta portuan bazegoen
okin bat, Leoncio izenekoa, garabi bat zuena.
Igeri egiten ez zekiten umeei garabia gerrira lo-
tzen zien eta plasta! uretara! Horrela ikasten ge-
nuen orduko umeei igeri egiten, gure kabuz.

**"Euskara bultzatzeko
dakigunok erabili
behar dugu"**

Zelan konpontzen zara teknologia berriekin?

Telefonoarekin oso ondo. Gauza asko egiten di-
tut: erosketak, banketxeko kontuak...

Zein izan da zure ustez asmakizunik onena?

Teknologia bera. Eta bititza asko erraztu digu
telefono mugikorrek, gauza askotarako erabil di-
tzakegu-eta: argazkietarako, elkar komunikatze-
ko...

Zenbat aurreratu dugu genero-berdintasunean?

Zeozar bai. Lehen esan dizut etxean aitak ez zue-
la ezer egiten. Zure etxean hori gertatzen da?

**Ez, aitak amatxok baino gehiago egiten du, bai-
na biek egiten dute.**

Beraz, zeozar aurreratu dugu, baina ez da nahi-
koa.

Euskara nahikoa egiten dugu Eibarren?

Aurrerapauso batzuk eman dira baina oraindik
asko dugu egiteke. Oso garrantzitsua da dakigu-
nok egitea, erabiltzea.



Urdaiazpiko- eta gazta-tortilla

Tortilla gauza erraza eta gozoa da, eta aukera asko ematen ditu. Hemen duzuen errezeta hau ez da batere zaila, erraz-erraz egingo duzue, baina munduko tortillarik gozoena irudituko zaizue. Probatu, probatu!

OSAGIAK :

- 4 arrautza
- 2 koilarakada irin
- 2 koilarakada gazta birrindu
- 2 koilarakada esne
- 4 koilarakada oliba-olio
- 2 york urdaiazpiko-xerra
- 2 gazta-xerra
- Gatza



NOLA EGIN:

- 1.- Irabiatu arrautzak gazta birrindua, gatza, irina eta esnearekin batera. Azken bi osagai horiek tortilla harrogoa eta sendoagoa egiteko erabiltzen dira baina horiek gabe ere egin daiteke.
- 2.- Berotu olio zartaginean. Moztu urdaiazpikoa eta gazta zatitxoetan eta arrautzarekin nahastu.
- 3.- Bota nahasketa zartaginean olio beroa dagoenean. Utzi mamitzen (zuei gehien gustatzen zaizuen arte). Tolestu erditik tortilla eta buelta eman.
- 4.- Urdaiazpikoa eta gazta xerra moduan ere jar ditzakezue tortillaren barruan zartaginean mamitzen ari den bitartean. Eta gero tolestu.

Atun-hanbursesak



Txikitu atuna eta gehitu berakatz, tipula eta perrexil xehetua eta azenario birrindua. Ondoren, gehitu arrautza eta gatza eta txikitu eta nahastu dena ondo. Ogi birrindua bota eta eskuekin nahastu ore trinkoa lortu arte. Eman hanburgesa itxura, pasatu ogi birrindutik eta frijitu olio berotan. Nahi duzuen moduan jan ditzakezue, platerean, hanburgesa-ogian...

TI-TA







HIZKI-ZOPA

6 Animalien izenak aurkitu

P	T	i	T	A	i	M	L	U	U
T	A	M	A	R	T	L	T	U	N
X	M	N	A	A	H	E	X	A	T
A	U	W	T	Z	A	H	A	E	X
W	A	M	X	E	D	O	K	T	I
X	Z	S	T	R	R	I	U	O	A
V	S	T	U	I	R	A	R	R	O
S	A	F	E	A	L	R	R	S	K
i	A	R	R	A	N	O	A	N	U
R	R	O	N	M	U	K	I	D	T

1. AZERIA
2. TXAKURRA
3. LEHOLA
4. UNTXIA
5. PANTERA
6. ARRA NOA


EZKUTUKO HITZAK AURKITU





MARRAZKI ASIMETRIKOA

Beste aldean marrazki berdina egin.



ASMAKIZUNAK

Zer dela eta zer da... *

Berdea da eta marra zuria da.

Hogeita bi pertsonen jalarsten dute.

← Zer da?

Zer dela eta zer da... *

Loremata erat da. Eguzki-aren argiarekin nortem da eta

← Eguzkiaren aldean mugitzen da.

Zer da?



7 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **MAIATZAK 6** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ASTEKO IRABAZLEA

Aupa TELMO, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko motxila zuretako! ZORIONAK!

**Eta zu, nire kumea** 6 urtetik aurrera

Elkarrekin gaudenean, begiak itxi eta animalia ezberdinak bihurtzeko boterea dugu. Zein animalia izan garen gogoratu nahi duzu? Umeak kume jaiotzen dira, berezkoak ditugun animalien senekin oso konektatuak. Hezten ditugun heinean, sen horiek modu arrazional batez menperatzeko gaitasuna garatzen dute eta beren jokabideak erregulatzeko gai dira.

**Printzesa txizontzia** 8 urtetik aurrera

Karolina Potolina printzesak bazuen ezaugarri bat, munduko printzesa guztien artean berezia egiten zuena: txizontzi bat zen, beti eta nonahi pixa egin behar izaten zuena, eta horrek hainbat arazo sortzen zizkion: txikitan, jolasten edo ikasten ari zenean; eta berdin handitu zenean eta Erresumako ardurak hartu behar izan zituenean: militarren desfileetan, ministro eta abarrekin egiten zuen bileretan...

**Istripu handia** 10 urtetik aurrera

Eskolako laborategian izandako istripu handi baten ondorioz Lina plastilina-zko bihurtuko da. Bere gorpuzkera berriak emandako aukerari esker, liburuan sartu eta hortik aurrera abentura mordo bat biziko ditu. Lehenengo eta behin, zirku batean biziko du abentura paregabea eta beste liburu-jauzi baten ondoren, itsas bidaia zirrargarri bat egingo du.

**BITXIKERIAK**

Ezinezkoa da ukondoa miazkatzea.



Pertsona bakoitzak 1 eta 2 litro listu artean jariatzen ditu egunean.

Hartz inurrijaleek egunean 35.000 inurri inguru jaten dituzte.





Galdutako lagunak

Duela urte asko, Irati eta Markos izena zuten bi lagun herri txiki batean bizi ziren. Bederatzi urte zituzten eta oso desberdinak ziren. Iratiri animaliak asko gustatzen zitzaizkion eta Markosi, ordea, teknologia. Egun batean, beraien herri txikia bonbardatu zuten eta herritik ihes egitean banandu egin ziren. Irati Portugalera eta Markos Frantziara joan zen eta ez ziren berriz elkartu eta kontaktua guztiz galdu zuten.



Irati 19 urterekin al baitaria izateko ikasketak egiten hasi zen unibertsitatean. Egun batean, Markos izeneko mutil berri bat agertu zen unibertsitatean, Iratiri ezaguna egiten zitzaion mutiko hura baina ez zekien zergatik. Halako batean mutila gerturatu zitzaion Iratiri eta bere burua aurkeztu zuen:

- Kaixo ni Markos naiz, Frantziatik etorri naiz teknologiako ikasketak egitera.

Iratiri txikitako laguna etorri zitzaion burura, baina kasualitate handiegia iruditu zitzaion eta ez zion ezer esan. Baina egunak pasa ahala bere susmoek pisu gehiago hartzen zuten eta lagunek animatuta Markosi hitz egitera ausartu zen.

- Kaixo Markos, zerbait hartu nahi duzu?

- Bale.

- Markos gogoratzen zara nitaz?

- Ez, baina egia esan, nire txikitako lagun baten antza hartzen dizut.

- Noski, ni naizelako.

Egun hartatik aurrera Markos eta Irati ez ziren berriro banandu.

IRAIA BLANCO

ZU BAI MARGOLARI!

